

KARMELE MUÑO A ARRIGAIN andreak, Bermeeko Udaleko jarduneko idazkariak,

ZIURTATZEN DOT:

2012ko urriaren 1ean **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

11.- ESKUALDEKO ENPLEGU PLANA GARATZEKO ETA DINAMIZATZEKO KONTRATUA ESLEITZEA.

Xedea

“ESKUALDEKO ENPLEGU PLANA” garatzeko eta dinamizatzeko kontratua esleitzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2012eko garagarriaren 9an izandako batzarrean, Tokiko Gobernu batzarrak baldintza administratibo eta teknikoak onartzea eta esleipen jardunbideari hasikerea emotea erabagi eban.

Bigarrena: LKS, IKERTALDE, INVESCO, TECNALIA, DELOITTE eta ARENAL GRUPO CONSULTOR enpresei kontratazinoan parte hartzeko gonbitea bialdu jaken.

Hirugarrena: LKS, IKERTALDE, TECNALIA ETA ARENAL GRUPO CONSULTOR enpresek, euren eskaintzea bialdu eben.

Argudioak

Lehenengoa: Hautagai guztiek A kartazala “Kontratetako gaitasuna eta kaudimena” aurkeztu eben eskatutako dokumentuakaz.

Bigarrena: B kartazala “Formula matematiko bidez kuantifikatu ezinezko erispideen dokumentazinoa” baloretan da:

ENPRESEA	Proposamen teknikoa Lan-metodologia (40 puntu)	Proposamen teknikoa Parte-hartze eredia (25 puntu)	Proposamen teknikoa Hobekuntzak (10 puntu)	GUZTIRA
LKS	38	24	10	72 PUNTU
TECKNALIA	----	-----	-----	----*

ARENAL GRUPO CONSULTOR	----	----	----	----**
IKERTALDE	28	12	10	50 PUNTU

*Tecnalia: Ez da baloretan. Ez dau beteten 2012ko maiatzaren 9ko, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren, Eskualdeko Enplegu Planak dinamizetako laguntzetarako deialdia egiten dauen AGINDUko 3 artikuluan esandakoa.

**Arenal Grupo Consultor S.L.: Ez da baloretan. Metodologiagaz batera gastu logistikoak proposamen ekonomikotik kanpo dagozala adierazoten da. Beraz, ez da proposamena onartzen.

Hirugarrena: C kartazaleko PROPOSAMEN EKONOMIKOAK eta euren puntuazinoa honakoa da:

ENPRESEA	Proposamen ekonomikoa BEZ KANPO	PUNTUAZINOA (25 puntu)
LKS	33.000,00	3,31 puntu
IKERTALDE	27.200,00	25 puntu

Laugarrena: B kartazaleko puntuazinoa gehi C kartazaleko puntuazinoak honakoa emoten dau:

ENPRESRA	B kartazala Proposamen teknikoa	C kartazala Proposamen ekonomikoa	GUZTIRA
LKS	72	3,31	75,31
IKERTALDE	50	25	75

Bosgarrena: Merkataritza, Sustapen eta Turismo batzorde informatiboak abuztuaren 30ean izandako batzarrean kontratua LKS enpreseari esleitzea proposatzea onartu eban eta, horren ondorioz, faltan egon diran agiriak aurkezteko errekerimentua egin jakon aitaturako enpreseari.

Seigarrena: Errekerimentuan emondako epean LKS enpreseak eskatutako betekizun danak bete ebazan, hori horrela, esleipena egin leike.

Erabagia

Hori guztia dala eta honakoa erabagi dau, aho batez, Tokiko Gobernu batzarrak:

BAKARRA: LKS enpreseari, "ESKUALDEKO ENPLEGU PLANA" garatzeko eta dinamizetako kontratua 38.940€ tan esleitzea. (33.000+5.940 BEZ).

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneraren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2012ko urriaren 8an.

ONETSIA
ALKATEA